

## **Hitzaurrea. Tolosako Elkarte eta Lagunartetako Musika-Partitura eta letrak**

---

*Tolosako Elkarte eta Lagunartetako Musika-Partitura eta Letrak* deritzon lan bikain honen aurkezpenerako lerro hauek idazterakoan honako gogoeta hau datorkit nire irudimenera: alegia ezinezkoa dela bururatzea arauzko komunitaterik egon daitekeenik gizarte-bizitzaren adierazmen praktikorik gabe; beronek itxura desberdinak har ditzakeelarik noski.

Gizonaren presentziak gizartean, bere kolektibitatearen eremuaren barnean giza-ihardueraren bizkarrezurra sortzen du. Gizartean pertsonen arteko batasuna eta lankidetzat gertatzen da. Guy Rocher-ek dioen bezala, kontzientzia kolektiboak ematen dizkio gizarte bati bere ezaugarri eta berezitasunak.

Ezaugarri desberdinetako jende-elkarketek erantzuten diote nola edo hala beren garaiko beharrei; eta desagertu egiten dira tokiz kanpo daudenean eta gaur eguneko gizarteari ezer esaten ez diotenean.

Idazlan honen egileek, Juan Bautista Aranzabe eta Carlos García, adierazten duten bezalaxe, beren ahalegina Tolosako Lagunarte eta Elkartek aintzat hartzea izan da eta era honetan liburuaren izenburua argigarria da; jai-barrutira eramaten bait gaitu. Hemen ez nuke ahaztu nahi –eta ahaztea deabruaren lana da– hitzaurre hau nola edo hala gauzatzekoan erria berri zaidala alde aurrez, bereziki Tolosako Inauterian kokatzen den kale-giro zala-partatsu eta alaia.

*Tolosako Elkarte eta Lagunartetako Musika-Partitura eta Letrak* liburuan berrogeitahiru entitate agertzen dira; gehienak Herri-Elkarte izenpean agertzen direnez, gure Herriko gizarte-ehunaren adierazgarri nabarmenak dira. Kontsulta-liburua da; bertan erakusten zaigularik talde bakoitzaren *nortasun-agiria*, baina aberastuta; eta kasu askotan elkartearen musika-partitura bereziarekin, hala nola letrarekin. Beroriek, sarritan, nire lagun idazle eta poeta Estanislao Urruzola *Uxola* zenarenak dira.

Zalantzarik ez dago *Tolosako Elkarte eta Lagunartetako Musika-Partitura eta Letrak* liburua osatzen duen bilketa-lana ekarpen interesgarria dela gure Herriko gizarte eta kultur ondasunarentzat; denbora iragan ahala bere balioa areagotzen joango delarik.



Itzaurrea. *Tolosako elkarte eta lagunartetako musika-partitura eta letrek* = Prólogo. *Partitura musical y letra de sociedades y peñas de Tolosa* / Juan Garmendia Larrañaga. - Tolosa: Donostiako Aurrezki Kutxa Municipal = Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, D.L. 1989. - 45 p. : il. ; 30 cm. - OC. T. 3, p. 685-686